

Batxilergoko

1. eta 2. mailak

12 ERDIZEN ETA
KORTSUNO
ANIZTASUNAK



JUSTIZIA

Lantzeko garaia

SED materialak 24-25



Elkartasuna | Hezkuntza | garapena



Jarduera

SAIOAREN DESKRIBAPENA

Jardueraren izenburua:

Zergatik dugu kontsumitzeko behar konpultsiboa?

Tokiak:

Ikasgela

Etapak:

Batxilergoko



Maila:

1. eta 2. mailak

Beharrezko materialak:

Proiektagailua eta tableta edo ordenagailua.

Telefono adimenduna

Denbora:

50 minutu



SAIOAREN GARAPENA

Testuinguruan jartzea

Es proposa una activitat en la qual l'alumnat de Batxillerat treballarà els aspectes de producció i consum responsable, des de l'origen d'aquesta necessitat de consumir fins a haver obtingut el producte desitjat. Es faran una anàlisi de les possibles conseqüències mediambientals, vulneració dels DD.HH. i problemes de salut propis, i se'ls proposarà difondre-ho a través de les RRSS del centre.

Sarrera (15 min gutxi gorabehera)

A) Ideia-jasa:

Zenbait galdera egingo dira, ideia-jasa bat sortzeko asmoz.

Ba al dakigu nola eragiten dioten gure burmuinari erosketek? Hau da, zerk bultzatzen gaitu behar dugun horretatik harago erostera? (Black Friday kanpainarekin lotutako gogoeta bat egin daiteke).

Pentsatzen dugu ideia-jasa horretan ikasleek gure burmuinean dopamina eta serotonina askatzen direla aipatuko dutela. Informazio hau azalduko diegu ikasleei:

Dopamina eta serotonina hormonek eragina dute erosteko gure jokabidean, eta, zenbaitetan, erosketa bat behar gisa hautematen da, berez behar edo premia bat ez bada ere. Dopaminak, "plazeraren hormona" ere esaten zaion horrek, halako sari-zirkuitu bat aktibatzen du burmuinean, eta sentipen bat eragiten

digu: erosteko premia. Erosketa amaitzean, serotonina askatzen da, eta zorion eta gogobetetze-sentipen bat sortzen du horrek.

Prozesu hori ezagutzea funtsezkoa da pertsona batzuek zergatik duten erosketekiko horrelako mendekotasuna ulertzeko. Oniomania deritzo nahasmendu horri, eta ohikoagoa da beren gogo-aldartean asaldurak dituzten eta inpulsibotasun handiz jokatzeko duten pertsonen artean. Erosketekiko mendekotasuna duen norbaiten eta halakorik ez duen beste norbaiten arteko alde nagusia hau da: lehengo kasuan, burmuinean sari-zirkuitua azkar eta maiz aktibatzen da. Autoestimua txikia duen edo arazo emozionalak dituzten pertsonak arrisku handiagoa dute mendekotasun-ziklo horretan jausteko.

Mendekotasun hori tratatzeko laguntza profesionala bilatzeak duen garrantziaz ere hitz egiten da artikuluan, zaila izan baitaiteke laguntza egokirik gabe gaitzitzea. Oniomania arazo emozionalak ezkuta ditzake sakonean, eta, horregatik, komenigarria izan daiteke osasun mentaleko espezialista batengana jotzea, arazoari erro-errotik heltzeko eta irtenbide eraginkorrak eskaintzeko.

B) Kontsumo-gizarteari eta zaharkitze programatuari buruzko bideoa emango da.

C) Modu arduratsuan kontsumitu ahal izateko gure bulkadak geuk



kontrolatzeri eta gure burua horren gainera kokatzeari buruzko hausnarketa orokorra

Adituen taldearen dinamika.

Sei talde osatuko dira ikastaldean, eta SEDen "Kontsumoaren labirintoa" saileko sei kapituluetakoko bat (bideoak) landuko du talde bakoitzak.

1. Iruzurra

SED GGKEaren "LABIRINTOA (1. kapituluak)" bideoak behar-beharrezkoak ez diren produktuak erostarazten dizkiguten marketin-estrategiei buruz dihardu.

2. Kontsumoak gure bizitzetan duen kostua

SED GGKEaren "LABIRINTOA (2. kapituluak)" bideoan, kontsumoak gure bizitzetan zerenolako kostua duen aztertzen du.

3. Elikagaiak

SED GGKEaren "Labirintoa (3. kapituluak)" bideoan, janariak alferriak galtzeari buruz hitz egiten da, eta botatzen diren janarien kopurua murrizteko zenbait webgune eta aplikazio interesgarri proposatzen ditu.

4. Hazkundera

SED GGKEaren "LABIRINTOA (4. kapituluak)" bideoak hazkunde ekonomikoari eta horrek sortzen dituen arazoei buruz dihardu.

5. Nola neurtzen da aurrerapena?

SED GGKEaren "LABIRINTOA (5. kapituluak)" bideoan, garapena ikuspegi ekologiko eta jasangarri batetik neurtzeko dauden adierazleak lantzen dira.

6. Esplotazioa

SED GGKEaren "LABIRINTOA (6. kapituluak)" bideoan, Low-cost jarduerak ezkutuan gordetzen duenaz hitz egiten da.

Talde bakoitzak esleitu zaion gaia landuko du, eta minutu bateko reel bat grabatuko du gehienez ere, ondoren ageri diren galderei erantzunez (bururatzen zaien modurik originalenean, eta ez da beharrezkoa eurak agertzea); ondoren, tutoreak ikastetxeko komunikazio eta marketineko atalera bidaliko du, eta sare sozialetan argitaratuko da, SED tutoretza garatzen den astean.

Galderak:

- **TALDE GUZTIENTZAT:** zer arazo planteatzen da bideoan?
- **TALDE GUZTIENTZAT:** giza eskubideak edota ingurumena urratzen edo kaltetzen dira?
- **TALDE GUZTIENTZAT:** zer egin dezakegu irtenbidea aurkitzeko eta gainerakoak horretaz jabetu daitezen? Bideoan proposa daitezkeenez gain.
- **6. TALDEARENTZAT SOILIK:** zer prozesu egin du hau grabatzeko erabiltzen ari naizen gailu elektroniko honek eta zer eskutatik pasatu da osagai guztiak eskuratzeko, horren ondo funtziona dezan?

Ondorioak

Reelak erakutsiko zaizkie gainerakoei, eta azken ondorioa azalduko du tutoreak, 12. GJHarekin lotuta egin ditzakegun ekintza eta aholkuak ere emanaz.

- **Bildu informazioa produktuei buruz:** erosi aurretik, ikertu produktuen jatorria, ekoizteko izan diren lan-baldintzak eta ingurumenean duen inpaktua. Aukeratu jasangarriak direnak eta etikoki ekoitzi direnak.
- **Murriztu, berrerabili eta birziklatu:** saiatu produktu gutxiago erosten, eta berrerabili dauzkazunak. Gehiago erabili ezin dituzunean, ziurtatu zuzen birziklatzen dituzula, ingurumen-inpaktua ahal beste murrizteko.
- **Tokiko eta sasoiko produktuak erosi:** eman zure babesa tokiko ekoizleei sasoian sasoiko produktu freskoak erosiz. Karbonoarekin lotutako aztarna ekonomikoa murrizteaz gain, tokiko ekonomia sustatuko duzu horrela.
- **Aukeratu luze irauten duten kalitatezko produktuak:** inbertitu bizitza baliagarri luzeagoa duten eta material iraunkorrekin eginda dauden produktuetan. Garestiagoak izan daitezke hasieran, baina, epe luzera, ekonomikoagoak dira eta hondakin gutxiago sortzen dituzte.
- **Saihestu jokabide inpultsibo bati jarraituz** egiten diren erosketak: erosi aurretik, galdetu zeure buruari ea benetan behar ote duzun. Saihestu modu inpultsiboan erostea, eta planifikatu zure erosketak, benetan behar duzun eta erabilgarria den zerbait erosten ari zarela ziurtatzeko.